



**AGINDUA, OSASUNeko SAILBURUARENA, OSAKIDETZA/ EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN LEHEN MAILAKO ARRETAREN EREMUAN OSASUN PROFESIONALAK LIBREKI AUKERATZEAREN ESKUBIDEA ARAUTZEARI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUA AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN MENDE JARTZEN DUENA.**

Osasun Sailak xedapen orokor bat egingo du, Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuaren lehen mailako arretaren eremuan osasun profesionalak libreki aukeratzearen eskubidea erregulatzeko xedez (Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak ezartzen ditu muga horiek).

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko erabakia dela-eta, xedapen arautzaile orokorrak izapidetzeko jarraibideak onesten baititu horrek, aurretiko kontsultaren izapidea egitea erabaki zen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133.1. artikuluan xedatzen dena estaltzeko, testu juridiko arautzaile jakin bat onetsi aurretik herritarrekin elkarreaginean aritzeko izapidea egin behar baita.

Kontsultak alderdi hauek jaso behar ditu:

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- Arauaren xedeak.
- Egon daitezkeen ordezko irtenbide erregulatzailerak edo ez-erregulatzailerak.

Hori dela-eta, baliiodun hogeitau eguneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta beren entitateek egokitzat jotzen dituzten iradokizun eta iruzkin guztiak aurkez ditzaten. Araua egin aurretik gauzatuko da kontsulta hori, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenekin bat eginez, honako hau

## **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Aurretiko kontsultaren izapidearen mende uztea, egin aurretik, Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuaren lehen mailako arretaren eremuan osasun profesionalak libreki aukeratzearen eskubidea erregulatzaren duen xedapen orokorraren proiektua.

**Bigarrena.-** Herritarrek eta arauak eragindako entitateek eta erakundeek, hala nahi badute, baliiodun hogeitau eguneko epean helarazi ahalko dituzte Agindu honen eranskinean azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia, kontsulta Euskal Autonomia



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1Q3Y-8WPH bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa den

ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

Donostia, T - 01010 VITORIA-GASTEIZ  
Tel: 945 01 64 66 - Faxa: 945 01 93 01 - E-maila: servicios-san@ej-gv.es

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador  
J0D0Z-T1Q3Y-8WPH en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Sin.: MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHERRÍA  
OSASUNEN SAILBURUA

## ERANSKINA

### **1.- Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak:**

Osasun-arloko profesionalak hautatzeari dagokionean, herritarrek, tradizionalki, familia-medikuak eta pediatriak aukeratu izan ohi dituzte. Aitzitik, lehen mailako arretako zerbitzuak garatzearen, erabiltzaileen eta osasun-zentroetan diharduten langileen arteko harreman pertsonalizatua sustatzearen, zaintza-lan asistentzialen eskaria handitzearen eta, batik bat, uztailearen 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren —sendagai jakin batzuk agintzeko, erabiltzeko eta horiek banatzeko baimena emateko erizainek dituzten ahalmenak arautzen ditu— ondorioz, komeni da, ahal den heinean, herritarren aukeratzeko ahalmena handitzea, erizainak eta emaginak hautatzeko aukera emanaz.

Hala ere, osasun-laguntza antolatzeak dakartzan zailtasunak direla-eta, osasun-sistemara sartzeko hautua egiteko, baldintza jakin batzuk hartu behar dira kontuan, kalitatezko arreta, antolaketa eraginkorra eta baliabideen zentzuzko kudeaketa uztartzeko.

### **2.- Ekimena onartu beharra eta hura onartzearen egokitasuna:**

Osasun Sailaren Lerro Estrategikoekin bat, norbanakoa da arretaren ardatz nagusi. Gainera, osasuna babesteko eskubidea aitortzen da, giza-eskubide eztabaida ezina delakoan. Hori dela eta, sail horrek defendatzen du osasunerako eskubidearen unibertsaltasuna dela Euskal Osasun Sistema Publikoaren printzipioetako bat.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren lehentasun nagusia hau da: EAEko osasun-sistema unibertsal, publiko eta kalitatezkoa bermatzea eta hura hobetzea. Halaber, Osakidetza 2017-2020 aldirako erronkek eta proiektuek agerian uzten dute unibertsaltasun, ekitate, elkartasun eta kalitate printzipioetan oinarritutako osasun-sistemarekiko konpromisoa duela, eta osasun-beharrak asetzea eta euskal gizartean balioa sortzea dituela helburu, publikotasunean eta erantzunkidetasunean oinarritutako etikatik abiatuta.

Erabiltzaileari emandako arretaren kalitate eta pazientearen ahalduntze printzipioetan oinarritzen da lehen mailako arretako profesionalak askatasunez aukeratzeko eskubidea.

Gauzak horrela, eskatzen da arau batzuk ezar daitezela, herritarrek beren eskubideak, arretaren ekitate, irisgarritasun eta humanizazio printzipioekin bat, baliatzeko prozedurak eta mekanismoak garatze aldera.

### **3.- Egin nahi den arau-proiektuaren xedeak:**

Dekretu-proiektu honen xedea da herritarrek, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lehen mailako arretaren esparruan, osasun-laguntza emango dien familia-medikua, pediatria, erizaina edo emagina aukeratzeko eskubidea arautzea.

### **4.- Egon daitezkeen ordezkotako irtenbide erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak:**

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak direla-eta, ezinbestekoa da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako irtenbiderik ikusten.